

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 186/2021 Erabakia, martxoaren 30ekoa. Baiestea 2020-2021erako jasangarritasun energetikorako laguntza lerroari lotuta Zuiako Udalak egindako aurretizko errekerimendua

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 3ko 139/2020 Erabakiaren bidez, onetsi zen energia jasangarritasuneko ekintzak sustatzeko laguntza lerroaren 2020-2021erako deialdia (ALHAOren 30. zenbakia, 2020ko martxoaren 13a, ostirala).

Zuiako Udalak laguntza eskaera aurkeztu zuen "Zuiako Udalaren eraikin publikoetan autokontsumorako eguzki instalazio fotovoltaiakoak abian jartzeko proiektu"rako, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Elektronikoko Erkidearen bidez, 2020ko maiatzaren 29ko 13:43an (erregistro zk. 20209000022158), eta eskaera hori 2020ko maiatzaren 29ko 14:01ean sartu zen Ingurumeneko Erregistro Orokorrean. Aurkeztutako aurrekontua 58.655,96 euro izan zen, 2020an (ehuneko 40) eta 2021ean (ehuneko 60) gauzatzeko, eta hartarako 23.836,02 euroko dirulaguntza eskatu zuen.

Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 13ko 475/2020 Erabakiaren bidez, onespina eman zitzaion 2020-2021erako energia jasangarritasuneko ekintzak sustatzeko dirulaguntza lerroaren esleipenari; hartan, ezetsi egin zen errekerimendu-egileak aurkeztutako dirulaguntza eskaera, ez zuelako eskaera aurkeztu Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikokoan ezarritako prozeduraren bidez ("Eskaera ez du egoitza elektronikokoaren bidez aurkeztu").

Aurreko aurrekarian adierazitako erabakiaren aurka, Zuiako Udalak administrazioarekiko auzietako jurisdikzio bidearen aurreko errekerimendua aurkeztu zuen, zeina 2020ko azaroaren 27an sartu baitzen AFaren Erregistro Elektronikoko Erkidean, "baliogabetu dadin Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 3ko 475/2020 Erabakia, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 47.1 a) eta/edo e) artikuluan edo, hala badagokio, 48.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, azaldutakoari jarraituz, eta jarduketak prozeduraren une egokira eraman daitezen".

2021eko martxoaren 3an, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak txosten bat egin zuen, eta hartan honako hauek zehaztu ziren, errekerimendua egin duenak aurkeztutako dirulaguntza eskaerari buruzkoak: a) AFaren Erregistro Elektronikoko Erkidean noiz sartu zen; b) Ingurumeneko Erregistro Orokorrean noiz sartu zen; c) aurkeztutzat eman izan balitz lortuko zuen puntuazioa; eta d) emango zitzaion zenbatekoa, hala egokitzuz gero.

Martxoaren 4an, Ingurumen eta Hirigintzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuak txosten juridikoa eman du, zeinean oinarritzen baita, hartara bidalita, ebazpen honen zentzua. Hartan ondorioztatzen da ezen, batera eta teleologikoki aplikatuz eta interpretatuz aztergai diren aginduak [Foru Gobernu Kontseiluaren 139/2020 Erabakia, martxoaren 3koa. Onespina ematea energia jasangarritasunerako ekintzak bultzatzeko laguntza lerroaren 2020-2021erako deialdiari. Xedatze zatiko bosgarren, seigarren eta bederatzigarren apartatuak (ALHAOren 32. zenbakia, 2020ko martxoaren 13a, ostirala); 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzen Lege Orokorra. 1. eta 5. apartatuak (BOEren 276. zenbakia, 2003/11/18); 39/2016 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Saileko Lege Araubideko Sailburuordetzak emandako txostenak, "Lege iritzia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen artikuluen 68.4 aplikazioari buruz" (76/2017 DDLCN – OL) eta "Argibide eskaera

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen artikulua 68.4 aplikazioari buruzko lege iritzia inguruan (76/2017 DDLCN-OL) (114/2019 DDLCN – OL)”; baita ere, Galiziako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazio Auzietarako Salaren 2. Atalak emandako urriaren 8ko 486/2019 Epaian jasotako Bigarren Zuzenbide Oinarrian jasotako doktrina (Roj: STSJ GAL 5399/2019 - ECLI: ES:TSJGAL:2019:5399 - Id Cendoj: 15030330022019100486), zeinak kopiatzen baitu Sala eta Atal berak emandako 2019ko irailaren 20ko Epaia, gai berari buruzkoa (4530/2017 zk.ko Prozedura Arrunta)], interesdunari errekerimendua egiteko beharra desagertu egiten dela eskabidea administrazio organo eskudunari fisikoki aurkezpeneko ezarritako epe kanpo helden zaion kasuetan, zeren jadanik ez bailitzateke izango posible juridikoki organo horrentzat interesdunari errekerimendua egitea eskabidea ezarritako bidetik aurkez dezan, aurkezpen hori egiteko epea aurretik igarota egongo litzatekeelako.

Kontuan izanik dirulaguntza eskaerak aurkezteko azken eguna 2020ko uztailaren 1a izan zela eta Zuiako Udalak aurkeztutako dirulaguntza eskaera 2020ko maiatzaren 29an sartu zela Ingurumeneko Erregistro Orokorrean, zentzuzkoa dirudi pentsatzeak udal horrek denbora nahikoa izango zuela eskaera garaiz eta forma egokian zuzentzeko eta, beraz, eskaera dagozkion baldintzetan baloratu behar da.

Balorazio Mahaiak aztertu du Zuiako Udalak aurkeztutako eskaera, eta puntuazioa eman dio, Kontseiluaren ekainaren 26ko 31/2018 Foru Dekretuak onetsi eta Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 9ko 23/2019 Foru Dekretuak aldatu zuen zazpigarren oinarrian ezarritako irizpideen arabera. Eskaerak mota bakoitzean izan duten balorazio orokorraren arabera ordenatzen dira, eta emandako puntuazioari erreparatuta esleitzen dira, harik eta aurrekontu zuzkidura agortu arte.

2021ean 107.135,99 euroko dirulaguntzak eman dira, eta 42.864,01 euroko saldoa geratu da emateke.

Zuiako Udalaren eskaera iristen da dirulaguntza mota bakoitzerako eskatutako gutxieneko puntuazioetara: 50 puntu 4 motarako.

Ikusita Zuiako Udalak 58.655,96 euroko aurrekontua eskatu duela, eta 4 jarduketa motakoa denez, gehieneko dirulaguntzaren ehuneko 40 dagokio, hau da, 23.462,38 euro.

Horren ondorioz, badagoenez argudiorik ondorioztatzeko Zuiako Udalari errekerimendua egin behar zitzaiola dirulaguntza eskaera deialdian ezarritako moduan aurkez zezan, alegia, AFaren Egoitza Elektronikoen bidez, baietsi egin behar da Zuiako Udalak egindako aurretiazko errekerimendua eta, ondorioz, eskatutako dirulaguntza eman behar zaio.

Horri jarraituz, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak eztabaidatu ondoren, gaurko saioan hauxe

ERABAKITZEN DUT

Bakarra. Baiestea Zuiako Udalak egindako aurretiazko errekerimendua, eta ematea dagozkion dirulaguntza, hots, 23.462,38 euro. Zenbateko hori Arabako Foru Aldundiaren 2021erako aurrekontuko gastuen egoerako “1.60205.6400.7629002 Efizientzia eta kudeaketa energetikoa” partidaren kontura esleituko da (dok. erref.: 105-796/21.1.21), eta epe hauek ezartzen dira:

1. Onetsitako jarduketei dagozkien gastuak gauzatzeko gehieneko epea: 2021eko uztailaren 9a.
2. Gastuak ordaindu ahal izateko eskatutako agiriak aurkezteko epea: 2021eko uztailaren 16a.

Ebazpen honek Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 44. artikuluan jasotako eskatutako aurretiazko errekerimendua ebazten du, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo

egunetik aurrera. Nolanahi ere, egokitzat jotzen den beste edozein egintza edo errekurtsio ere aurkeztu ahal izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 30a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria

NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA